


EUSKARA EHU-N. 2005. urterako unibertsitate publikoak egun duen ikasleriaren laurdena galdu egingo du

Irakasle elebidunak faltan eta euskara ez dakitenak soberan izango dira EHU

Unibertsitatean sartzeko hauta-proba euskaraz egiten duen ikasleen kopurua %2 igo da urtero azken zortzi urteetan

Euskara Euskal Herriko Unibertsitatean

Irakasle elebidunen bilakaera 1993/ 99




Selektibitatea - Hizkuntz hautaketa

	1994	1995	1996	1997	1998
Ikasleak Guztira	13.339	15.400	15.174	14.674	14.508
Gaztelera	9.980	11.159	10.738	10.093	9.687
Euskaraz	3.359	4.241	4.436	4.581	4.821
Ehunekoak Euskaraz	25	27	29	31	33

Lehen kurtsoko matrikulazioa

	1994	1995	1996	1997	1998
Ikasleak Guztira	16.954	17.737	17.829	17.478	16.500
Gaztelera	14.027	14.540	14.331	13.883	12.956
Euskaraz	2.927	3.197	3.498	3.595	3.544
Ehunekoak Euskaraz	17,3	18,0	19,6	20,6	21,5

Portzentaia alderaketa



Iturria: Euskararen erabilaren normalizaziorako II. planingintza
Diagnostico del sistema publico universitario vasco

A. PEÑALBA



XOUSE SIMAL

EHUK euskaldunen eskubideak ez dituela errespetatzen salatzen ikasleek egindako manifestazio bat.

Gorane Agirre | BILBO

Euskal Herriko Unibertsitateak (EHU) erronka garrantzitsu bati egin beharko dio aurre etorkizun hurbilean. Alegia, jaiotze tasaren jaitsiera eta irakaskuntza ez unibertsitarioaren euskalduntzearen hedapena dela eta, gaztelaniaz ikasi nahi izango duten ikasleen kopuruak merma nabarmena egingo du, horren ondorioz, gaztelaniaz irakasteko beharrak ere jaitsi egingo dira. Ordea, euskaraz ikasi nahi dutenen eskariak

gora egingo du. Baina egun EHUKo irakasleen %75 ez da gai euskaraz klaseak emateko.

Beraz, neurri eraginkorrak hartu ezean, etorkizunean desorekak sor daitezke. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak kaleratu berri duen *Diagnostico del sistema publico universitario vasco* azterketaren ondorio nagusietako baten arabera, «EHUren euskalduntze prozesua bere garapenaren barruan aurreikusi behar da, irakaskuntza ez unibertsitarioaren hizkuntza logikei erantzunez».

EHUn, orotara, 3.800 irakasle inguru dauden arren egun oso baldintzetan daudenak 3.500 irakasle dira. Azken kopuru horretatik 750-800en bat elebidunak dira; hau da, egungo irakasleen %22-23 baino ez dira elebidunak.

Bestalde, EHUKo ikasleen %35ek unibertsitatean sartzeko hautaprobea euskaraz egin zuten. Edonola ere, horien guztien zati batek gaztelaniaz ikasten du. Horren arrazoi nagusia unibertsitate publikoaren «euskarazko eskaintza mugatua» da, Euskararen Normalkuntzarako II Planak berak jasotzen duenez.

Ikasleen herena baino gehiago egun euskalduna bada, kopuru hori azken urteetan etengabe hazi da: urtero %2 igotzen da. Hau da, 1994. urtean hautaprobea euskaraz egin zuten ikasleen %25,2k eta 1998an %33,2 izan ziren.

Goranzko joera etengabe hori agerian geratzen da unibertsitateko lehen mailetakoko matrikulazioetan: 1993-94 ikasturtean euskaraz ikasten zutenen portzentaia %17,3koa zen eta 1997-98an, %21,3koa.

Aldi berean, Batxilergoko hizkuntza ereduen bilakaera aintzat hartuz gero, hamar urte baino lehen ikasleen erdiek D ereduaren ikasiko dute, hau da, %50 euskalduna izango da.

gehiago ematen dituzte. Bestalde, euskarazko testuliburuaren gabezia medio irakasle eta ikasmaterialak irakasleek beraien itzuli eta prestatu behar dituzte. Hala ere, ez dute inolako laguntzarik hizkuntzaren alorrean izan ditzaketenez zailak edo arazoak argitzea, besteak beste, zerbitzu hori eskaini beharko lukeen Euskara Institutuak proiektu izaten segitzen duelako.

Urkaregik salatu duenez, «lan baldintza horiek medio irakasle euskaldun berriek alde egiten dute beste eskaintza hobe bat jasotzen dutenean, eta hori da aurtengo Sarriko Fakultatean gertatu dena».

ARANTZA URKAREGI | EILAS

«Irakasleei oso baldintza onak eskaini behar zaizkie euskalduntzeko»

Irakasleak euskalduntzeko bidea garrantzitsua dela uste du Arantza Urkaregi EILAS sindikatuko kideak, baina ezinbestekotzat jotzen du planingintza «serio bat» egitea. Unibertsitateko langileen gehiengoa ordezkatzen du EILASek. Urkaregiren ustez «irakasleei oso baldintza onak eskaini behar zaizkie beren buruak euskalduntzeko, bestela ez dute egingo. Irakasle elebakar ia gehienak funtzionarioak dira eta bada-

kite euskaldundu ezik ere hemen segituko dutela».

Urkaregik irakaskuntza ez unibertsitarioan irakasleak euskalduntzeko dauden arazoak aipatzen ditu. «Irakaskuntza ez unibertsitarioan oso baldintza onak dituzte beren buruak euskalduntzeko eta hala ere arazoak dituzte. Hemen ezeren truke oso zaila ikusten dut jendea animatzea. Behar beharrezkoa da irakasleei erakargarri egitea beren buruak euskalduntzea, eta

horretarako programa serio bat egin beharra dago. Horretaz gain, irakasleei denbora eman behar zaie beren burua trebatzeko, baina baita beren irakats eta ikasmaterialak euskaraz prestatzeko, eta sei hilabete ez da inolaz ere nahikoa».

Euskaraz irakasten dutenen lan baldintzak irakasle elebidunen ohiko kritika da. Batek, irakasleko ikasle kopuru handiagoa dute. Bestetik, besteek baino dezentzia ordua